

LUIS DE PABLO

«Sorkuntza artistikoaren kontrako aktibitatea da boterea»

Kontsumorako musika banketxean, tindategian, okindegian, tabernan, kalean... Kontsumorako musika munduko lau kórnerretan. Luis de Pabloren musika baltsamo da itotzen gaituen zarataren erdian.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Bihotzekoa izan duzu udan, susto galanta!

Ez ezazu uste. Tira, sustoa izan da ondoko-entzat, ez niretzat. 80 urteak beteak dituzunean, argi! Mugara heltzen ari zara, nolabait. Bestalde, duela urte asko izan nuen nik bihotzekoa, orain baino lehen. Udan izan dudana ez da sustoa izan, deserosoa baizik. Sustoa da hil zintezkeela! Ez dut nire burua heroiko azaldu nahi, ezta indiferente ere, baina, egia-tan, adin jakin batera heldu eta heriotza ere kontuan hartu behar izaten da. Niri, zerk edo zerk sustoa ematekotan, heriotza mingarriak izutzen nau, ez naiz ezertarako masokista. Bihotzeko gaixotasunak ez ohi dira mingarri—denetarik dago, jakina, gustu guztiak hor ere—, baina, badiotsut, ez ohi dira mingarri. Udan izan dudana bihotzekoa ez da mingarri izan, baina bai oso larria, hiltzen ari zarela jabetzen baitzara, bazoazela, erlojua geratzen ari zaizula... Zaila da azaltzen, eta nahiago dut esperientzia ez baduzu, kar, kar, kar.

Mila esker mila. Kar, kar, kar.

Dena dela, hiltzen ari zarela, hor non agertzen den naturaleza-ama. Berak bizitza-konstanteak ere jaitzarazten dizkizu, eta heriotza lasai onartzen laguntzen ditu. Badiotsut, ez naiz heroï, ez inor baino ausartago, ez koldarrago, askoren artean bat naiz, beste guztiak bezalakoa, eta heriotza datorkizula ikusten duzu, baina modu errukigarrian datorrela, jasateko moduan... Onartzeko moduan, esan nahi dut. Jakina, amarrukeria txiki bat ere bada hor, guztiz kontziente ez bagara ere. Egoera kritikoa zaudelarik, medikuek lagun-

du besterik ez dute egiten: lasaigarri mordoa ematen dizkizute eta zuri sosegua iruditzen zaizuna ez da, finean, lasaigarri baten ondorioa baizik. Sustoa, hortaz, ondokoek, haiek gehienetan ez baitute lasaigarririk, kar, kar, kar. Zu, aldiz, debekatutako substantzia horietatik bete-bete eginda zaude, morfina edo bestetik. Azkenerako, irribarrez ari zara! Hiltzeko zorian zaudela? Bai, baina familiarik nobleenean ere gertatzen da hori.

Ospitalean bertan, laster hasi zinen lanean.

Bai, hamabost egun baino gehiago igaro nituen ospitalean. Lehenengo momentuko larria eta gero, behaketa-unitatean nengoela, tratamendupean, ez nuen ezer egiten, irakurri eta gelan ibili besterik. Orduan, andreari esan nion: “Marta, ekardazu koaderno pare bat, ideiak datozkit burura, eta landu egin nahi ditut”. Eta horixe egin nuen, lan. Batetik, opera bat egiten ari naiz, baina libretistak zenbait material eman zain nago. Bestetik,

NORTASUN AGIRIA

Luis de Pablo (Bilbo, 1930). Nazioarte mailako ospea duen musikagilea, irakasle, eta irakasleen irakasle. Abangoardia du lan arlo, bide berriak arakatzen eman du bizia, nekaezin. Genero guztiak landu ditu, orkestra eta kamera musikak batean, opera bestean... berritzaile beti. Ezin konta ahala obra ditu argitaratuak, eta hamaika sari, merezimendu eta izendapen jasotakoa da. Madrilen bizi da, baina Donostian eman ohi ditu udak, bertakoa baitu emaztea, Marta Cardenas artista.





kamera txikiko obra bat ere ari naiz egiten, eta pozik.

Zure biografiaren zertzeladak irakurri ditut han-hemengo entziklopedietan. Sorkuntza duzu nagusi, baita oraindik ere. Egun, zer duzu pizgarri? Zergatik ez esan: “Egin dut egin nahi nuen. Kito!”?

Ez naiz sortzeaz nekatzen. Ez dakit arrazoirik, ezingo nizuke esan... Tira, inguruan psikoanalistaren bat bagenu, Txanogorritxuren ipuinaren antzekoa kontatuko lizuke. Alegia, hiru hilabete nituela berealdiko frustrazioa izan nuela, amak ez zidalako tititik behar beste eman eta hau eta hura, eta horrek *shock* traumatikoa eragin didala eta harrezkero musika idazten jardun behar dudala etengabe. Psikoanalistek esan ohi dituztenak, badakizu... Eta baliteke oker ez egotea, kar, kar, kar.

“Baliteke” diozu. Ez da gauza ziurra...

Hara, kontatu dizudana ez da gezurra, halaxe gertatua baizik. Antonio Fernandez Alba arkitectoaren etxean ginen. Lagun handia dugu. Psikoanalista du andrea. Jaia egin zuten etxean, senar-emazte psikoanalista batzuen ohoretan. Andre hark galdetu zidan: “Noiz hasi zinen musikan?”, “bada, ez dakit. Musikari ikusi dut beti nire burua. Haurretatik. Etxean piano bertikala genuen, eta 3-4 urte nituela, atzaparrak teklatuaren gainean jarri

Pentsalariak

“Egun, askotan leporatzen zaie pentsalariei ez dutela parte hartzen gizarte lanetan, baina, nola parte hartu? Uzten ote zaie parte hartzen? Ezertarako balio du haien parte-hartzeak? Ez. Zenbaitek oso lan ederrak ditu argitaratuak, edo argitaratu zain, baina berdin dio, ez dute batere eraginik”.

eta zarata egiten nuen. Ikaragarri gustatzen zitzaidan”, “hara, bokazio goiztiarra! Horrek esan nahi du, oso umetan, *shock* handiren bat izan duzula. Ez duzu gogoan izango, baina *shock* horrek esplikatu luke musika egiteko duzun premia larri hori”. Begira-begira geratu zitzaizkidan biak, galdezka bezala: “Zein izan zen *shock* hori?”. Ez nien erantzun, irribarre egin besterik, atseginez, eta horretan utzi genuen kontua... Horrek ez du dena azaltzen. Zati bat, zati inportanteren bat, ziurrenik, baina zatia. Dena dela, ez noa nire burua psikoanalisten eskuetan jartzera, *shock*-a eragin zidan hura azalera ekarri eta baliteke bokazioa galtzea. Izan ere, horixe gertatu zitzaion nire lagun bati. Hark ere badu historia...

Bizia sortzen emana, atzera begira jarri eta zer ikusten duzu?

Ahalegin handian –eta beti ez bake eta onean–, nahi izan dudana egin dudala. Musikari izan nahi nuen, musikagile, eta bokazio horren arabera obra egin dut. Inoiz ez dut besterik nahi izan. Ezta pirata izan nahi den garaian ere! 13 urte nituela espeleologo izan nahi nuen, baina 13 urte nituen, eta berehalaxe aienatu zitzaidan asmo hura. Obra egin dudala ikusten dut, beraz, pozik eta alaitasun handiz egindakoa. Haren destinoa, berriz, ezin aurreikus nezake. Batek daki. Hiltzen naizenean nire obrak iraun dezan nahiko

Profeta

“Uste dut, egun, gizarteak halako botere mekanika batzuk baliatzen dituela, pentsalarien material ona bide bazterrean botata uzteko. Material horrek baduke balio operatiborik, baina ezin dizut esan, ez bainaiz profeta. Esaten ari naiz, egun dagoen sorkuntza artistikoak, eta balizko pentsamenduak, ondorioren bat izango dutela. Zein? Ez dakit. Behin baino gehiagotan gertatu da historian zehar. Horra kristautasuna. Hamahiru lagunek ereindako haziak zenbat denbora behar izan zuen, bada, uzta eman orduko? Noiz hil zen, bada, Karlos Marx? Noiz eman zuen fruitu haren dotrinak? Horra Goia. Bizi-bizirik dago oraindik, bizi zen garaian ez bezala... Beethoven, berdin”.

nuke, eta, horrekin batera, gainerakoei baliagarri gerta dakien desio nuke. Aldi berean, planeta honetan nire lana jarraitzen duten ikusleen baitan estimulu positiboren bat sorraraztea espero nuke. Ezingo nizuke besterik esan. Lehengo lepotik burua segituko dut lanean, eta ziurrenera, gogo horrekin eutsiko diot hil hurren izaten naizen arte, baina ezin dizut ziurtatu, ez baitago nire esku. Ahal nuena egin dut, nezakeena...

...

Nola esan, esperientzia gazi-gozoa izan da, nola baita gure bizia. Dena den, beharrezkoa nuen. Bide honi uko egin izan banio, gaizki bukatuko nukeen, bizialdi garraztua izango nukeen, nire ondoko jendeak ezin izango nindukeen jasan, alditxarturik eta erasotzaile ibili izango nintzatekeen beti eta, azkenean, nire baitako inpultsu makurrak sorkuntzan erabili izan ez banitu, beharbada –batek jakin– nire buruaz beste egingo nukeen. Nik ez dut naizena izateko beste gogorik.

Arestian esan duzunez, nahi izan duzuna egin duzu, “ahalegin handian”. Aldiz, sortzailea inspirazioa etorri zain bizi dela uste du askok.

Inspirazioa, izan, bada, jakina! Baina barneko

inspirazioa kanpora atera behar izaten da. Haurra egitea lan atsegina ohi da hala gizonarentzat, nola andrearentzat. Erditzea, aldiz, molestia galanta zaio andreari. Halaxe dator Biblian bertan. Bada, berdin honetan ere: esatekoa izan behar duzu, baina, ondoren, esateko horrek halako forma bat behar du. Eta forma hori ez datorkizu alferretan, ez debaldetan!

Abangoardia da zure musika. Berria. Atonalismoa eta serialismoa, forma aleatorioak, esperimentu grafikoak, teknika elektronikoak... Zertan abiatu inork ibili gabeko bideetan barna, lehendik urratutakoak hortxe izanik?

Sortzaileari ezinezkoa zaio. Bere obra egin nahi duelarik, sortzaileak barruan sentitzen du zer bat “hau bai, hau ez!” agintzen diona. Zertan errepikatu lehendik beste pertsona batek egin duena? Hasteko, zuk baino hobeto eginga izango du ziurrenera, berri izan baitzaio. Hark egin duena errepikatzen baduzu, horixe egiten ari zara, hark egin duena errepikatzen. Besteren ahotik ari zara hizketan, esaera den moduan. Zer ekarpen egiten duzu? Argi gera dadin nahiko nuke. Esaten ari naizena ez da gogoeta, intuizioa baizik. Zerbait sortzen ari zarelarik, hainbat hautu dituzu. Eta zer hautatu? Bizirik dagoena! Eta bizirik dagoela jakiten duzu, eta sentitzen duzu, huraxe –eta hainbat aukeraren artean huraxe eta ez besterik– egiteko inpultsoa duzu-eta. Minbera non duzun bila zabiltza. Aurkitzen duzunean, zer edo zer pizten da, eta egiten saiatzen zara. Horrek, beti –ez noa “ahalegina” esaten–, egiazko pasioa esan nahi du, hitzaren adierarik jatorrean. Egiten ari zaren horrek apasionatu egiten zaitu. Bestela, hobe duzu utzi.

“Apasionatu egiten zaitu”. Obsesionatzen zaitu?

Bai, hori ere hor dago, lehenengoan asma-tzen ez baduzu, batik bat! Edo bigarrean,





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.


Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.







BIZKAIA BIZIA



AZKEN HITZA

Krisia

“Ez omen da inoiz horrelako krisirik izan! Faborez! Egin dezagun kontu elkarrizketa hau 1936ko uztailaren 15ean dugula. Handik hiru egunera, Gerra Zibila Espainian. Handik hiru urtera, Bigarren Mundu Gerra. Oraingo krisia haur-jolasa da ordukoarekin konparatuta!”.

Ez, ez dut horrelakorik pentsatzen. Nik eskaintza egiten diot, eta nahi duena etorriko da nire atzetik. Eta ahal duena. “Ahal duena” esateak ez du, nahitaez, prestakuntza esan nahi, entzuteko aukera izatea baizik. Deskuiduan orkestra osoarentzako obra idazten badut, edo piano solista batentzat, edo gisakoren bat, badakit herri txiki galdu batean bizi den hari nekez iritsiko zaiola nire musika. Onenean, telebistaz ematen badute. Aukera handirik ez du izango. Baina gaiok ez daude nire eskura. Boterean daudenek erabakitzen dute hori, eta jendeari ematen zaion hezkuntza, eta boterea, badakigu, beti egon da, eta orain inoiz baino gehiago, diruari lotuta. Eta diruaren inguruan dagoen espekulazio guztiaren saltsa-maltsan —oraingo egoera hau ikusi besterik ez dago—, zer egin lezake artistak? Ezer ez. Artista ez da espekulazio horretan sartzen, artista —guztiok bezala— biktima hutsa da, ez dauka botere mundu horretan sarbiderik. Eta sarbiderik balu, sartuko balitz, desagertu egingo litzateke, artista izateari utziko lioke. Sorkuntza artistikoaren kontrako aktibitatea da boterea. Oraingo gizartea, haren aginte organoak, sorkuntza artistikoaren antipodetan ez ezik, sorkuntza bera antipodetan daude. Ezina da hori eta pentsamendu librea uztartzea. Ez dago modurik. ■



edo hirugarrenean asmatzen ez baduzu, mailu-kolpea bezain gogaikarria izan liteke. Hortxe eulia burrunban! Zer esaten zuen, bada, harako pentsalariak? Musikagileak leza-keen tresnarik baliagarriena paper saskia zuela. Horrela da. Badira musikagile batzuk lana erraz egiten dutenak. Badira beste batzuk nekez ari izan direnak. Schubert batek, esaterako, mila obra baino gehiago egin zituen hogeita hamaika urtean. Ezinezkoa dirudi, estatistikoki ere, baina egin zituen! Ikusi egin beharko genuke egin zituen lieder guztiak, arratsalde batean hiru, eta lau eta bost ere, egingo baitzituen, hau da, obra laburrak, baina adierazkortasun handikoak. Jakina, hiru-lau minutuko liederrak egin ordez, Jainkoen Azkena bezalako opera egiten baduzu, askoz ere denbora gehiago behar duzu, inondik ere! Musikagile batzuek beste batzuek baino askoz errazago idazten dute, bai, baina zer zuten helburu ikusi behar.

Sortzen ari zarela, gogoan duzu entzulea? Harako txirulari hark bezala, zure atzetik nahiko zenuke publikoa ibilarazi?

Kontsumo musika

“Era askotara aztertzeke moduko fenomeno da, baina pentsatu ere ez ikuspegi artistikotik aztertzea! Ikuspegi artistikotik ez du batere baliorik. Txinatar [denda] batera sartu eta inbutua erostea duzu hori. Hor ez dago gertakari artistikorik. Bada, berdin. Badakit jende askok bestela pentsatzen duela, bai, eta niri zer!?”.



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276
Bizkaia etorbidea, 9 / 9
Arrasate (Gipuzkoa)
txondorra-sagardotegi.com